

## 14 – TOBILLAS - HERRÁN (2017-09-30)

### EZAUGARRIAK

**DISTANTZIA :** 20,8 km.  
**DESNIBELA :** +945 m. / - 1.010 m.  
**DENBORA :** 6 or. 15' - 6 or. 30'

Tobillasetik (641m.) atera ondoren elizara igoko gara, mendi bide bat hartuko dugu labore sailetan barrena basoan barneratzeko igoera handiarekin. Hainbat mendi bide igaro ondoren, ipar-ekialdetik ipar-mendebaldera luzeran Gobeia haitzaren azpitik doan mendi bide nagusira aterako gara. Igoera eta jaitsiera motzen tarte bat igaro eta gero burdin hesia duen pasabide batera iritsiko gara; goragoko kotara igotzen den mendi bide bat ixten du hark. (869 m.) 2,4 Km.

Burdin hesia igaro ondoren goiko mendi bidean barrena oholtzoz osatutako bidegurutze batera iritsiko gara; hantxe elkartzen da mendi bidea Gr-282rekin (*Artzainen bidexka*) (887 m.) 4,8 Km.

Leku horretatik aurrera nabarmen makurtzen da mendi bidea; % 20, 1.000 metroko tarterako eta 200 metroko desnibela. Tarte hori igotakoan Gobeia mendilerroko mendatera iritsiko gara. (1.086 m.) 6,1 Km. Handik aurrera 1,5 Km egingo ditugu bide errazetik eta itxuraz bederen desnibelik gabe, eta Gobeia edo Arrayuelas mendi gailurrera iritsiko gara (1.092 m.). Ikuspegi ederrak egun onarekin (*Urduña, Gorbea, Kantabria mendilerroa, La Mota eta Vallegrul, eta baita Boveda eta Valderejo haranak ere*). Berriz ere aurreko mendatera itzuliko gara, eta han Lalastra herrira (Valderejo) eramango gaituen mendi bidea hartuko dugu. (913 m.) 10,7 Km.

Gr-282 hartuko dugu Puron ibaiaren iturburuaren gainetik doana. Bihurgune handi baten ondoren basoan barneratzen da eta jaisten hasten da Ribera hiri hustura eramango gaituen sakan politean sartuz. Herrira iritsi baino lehen, hura hurrengo etapan bisitatuko dugu, Gr-282 utziko dugu eta pinu eta ezpel baso batean barneratzen den mendi bidea hartuko dugu ezkerretik, eta 60 metroko desnibelarekin muino batera iritsiko gara. Puntu honetan Gr-282 hartuko dugu berriro ere, Santa Ana gailurraren oinetan (900 m.) 16,5 km. (*Santa Ana gailurrera igotzea aukeran egingo da. 1,2 kilometro dira joan eta etorri eta 140 metroko desnibela*).

Jaitsiera handi baten ondoren Riberara joateko bidea azaltzen duen bidegurutzera iritsiko gara, guk ezkeraldera hartuko dugu, Herran aldera. Mendi bide zabalari jarraituko diogu eta Herran herri politera iritsiko gara, Burgosko probintzian jada. Handik gertu aparkalekua (576 m.) 20,8 km.